



Deskribapena	Egilea/Kontratista/Data	Zenbatekoa	Epea
Proiektua idaztea	IA+B (Iñaki Aurrekoetxea)	20.743.465,50 € (BEZik gabe)	30 hilabete

#### PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Ondarroako Plan Bereziak Egidazuren moilak bideratzen ditu arrain-lonja berri bat eraikitzeko, 18.198 m<sup>2</sup>ko lursail batean, zeina gaur egun 3 zonatan banatuta baitago, hainbat erabileratarako:

- Iparraldeko moilak hiru alde ditu itsasora begira, eta orain dela gutxi handitu da helburu horretarako (PROES\_SATO). Bertan ez dago eraikinik, eta arraina deskargatzeko, kaxa garbiak pilatzeko eta kamioiak uzteko erabiltzen da.
- Erdiko aldean, honako hauek daude: Kofradiaren eraikina (baxurako enkanteen aretoa barne), Kapitaintzaren eraikina eta baxurako pisatze-baskulak.
- Hegoaldeko moilak alde bat du itsaso aldera, eta han atrakalekuak, txandakako aparkalekua eta gasolina-zerbitzugune txiki bat daude.

Egoera horrek garbi uzten du azpiegitura bat eraikitzea beharrezkoa dela, harrapatutako arraina eraikin estali batean deskargatu ahal izateko, hotz-katea mantentze aldera eta elikagaien manipulazioan eskatzen diren higiene eta osasun-baldintzak bermatze aldera.

Horregatik guztiatik, proiektuan zehazten den eraikinak hiru zati ditu:

- Lonjaren eraikina bera: ipar hegala okupatzen du, eta beheko solairuan dago arraina sartzeko zona nagusia, zeinak 7 ate baititu moilaren ertzetik ekartzen den arraina sartzeko. Alturako arrainak erakusgai jartzeko lekua. Iparreko muturrean, izotz-fabrika berria jarriko da. Lehenengo solairuan, kaxak garbitzeko eta gordetzeko lekua eta saregileen gela egongo dira.
- L-aren erdialdean, zerbitzuen eraikina, lonjaren gainean. Terraza estali bat egingo da hor,

sortzen den plaza berriaren aldera. Eraikin horren azpian, instalazioak eta enkante-aretoa daude. Lehenengo solairuan, Lonjako langileen aldagelak, lanabes-denda bat, arrandegi bat, jatetxe bat eta Udalak eskatutako lokal bat.

- Ibiltzeko moduko estalkia, lonjaren eraikina bildu eta erabilera publikoko espazio berria definitzen duena. Merkaturatzaileen biltegiak, baxurako arraina deskargatzeko gela eta hozkailu-gelak.

Azpiegitura hau faseka egingo dela zehazten da proiektuan, obrak egiten diren bitartean portuko arrantza-jarduera eten behar ez izateko. Horregatik, lehenengo eta behin, ipar hegaleko eraikinak eta eraikin administratiboa egingo dira. Alde hori operatibo dagoenean, lur-gaineko baskulak eta Kapitantzak eta Kofradiaren eraikinak eraitsiko dira. Geroago, gainerako guztia egingo da.

### **INGURUMEN HOBETUNTZAK**

- Portuko jarduerak hiri-inguruan sortarazten dituen zaratak eta eragozpenak gutxitzea.
- Instalazioak eguneratzea, eraginkortasun energetiko handiagoa lortzeko: izotz-fabrika, elektrizitatea, argiztapena, eta abar.
- Energia elektrikoko haize-sorgailuak
- Hondakin eta isurketen kontrola hobetzea

### **PAISAIA INTEGRAZIOA**

Proiektuak portuaren eta udalerraren beharrak batzen dituen eraikin bat zehaztu du. Horretarako, ibiltzeko moduko estalki bat definitu da, aukera ematen diena herritarrei portuko jarduerak eta itsasoa alturatik ikusteko. Enkante-aretoan egiten diren jarduerak ere ikusi ahal dira, tabikeak kristalezkoak direlako.